

>>> Hegan egiteko aukerak

ERASMUS+ BEKEN INFORMAZIOA SMT PRAKTIKAK – ERDI MAILAKO ZIKLOAK

Edukiak

1. HELBURUAK
2. BEKEN IRAUPENA ETA EPEAK
3. BALDINTZAK
4. HERRIALDEAK
5. FINANTZAKETA

1. HELBURUAK

- a) Ikasleei Europar Batasuneko lan merkatu zabalak dituen beharretara egokitzen laguntzea.
- b) Ikasleek gaitasun espezifikoak gara ditzaten laguntzea, gaitasun linguistikoa barne, eta lan esperientzia hartzearekin batera, herrialdeari buruzko kultura, gizartea eta ekonomia ezagutza areagotzea.
- c) Lantegi eta ikastetxeen arteko kooperazioa bultzatzea.
- d) Gazteek atzerriko ikaskuntzan zehar lortutako gaitasunak aintzatestea, kualifikazio maila altua garatzen laguntzea eta nazioarteko esperientziak ematen duen ikuspegi zabalagoa duten profesionalak formatzea.

2. BEKEN IRAUPENA ETA EPEAK

Hetelek eskatu duen deialdiak, 13 asteko iraupeneko lan praktikak aurreikusten ditu Europako enpresetan¹, betiere **egun osoko** ordutegiarekin. Mugikortasuna martxo eta ekaina artean gauzatuko da.

¹ Enpresa bezala bere aktibitatea arlo publiko edo pribatuan garatzen duen edozein erakunde ulertzen da, bere tamaina, errejimen juridikoa edo jarduten duen sektore ekonomikoa edozein izanda ere, ekonomia soziala barne. (oinarri legala, 2. artikulua, 25. zenbakia). EZ dira harrera erakunde bezala honoko enpresa hauek hartzen:
□ EBeko instituzio edo EBeko beste erakundeak (zerrenda osoa hemen: http://europa.eu/institutions/index_es.htm)
□ EBeko programak kudeatzen dituzten erakundeak (interes gatazka eta/edo finantziario bikoitza saihestearren)
□ Jatorrizko herrialdeko instituzio edo ordezkaritza publikoak, hala nola, enbaxadak, kontsulatuak, institutu kulturalak, ikastetxeak, etab, programaren nazioarteko baldintzaren derrigortasunagatik.

>>> Hegan egiteko aukerak

3. BALDINTZAK

- a) EMHZ bateko 2. kurtsoko ikaslea izatea Politeknika Txorierrri Ikastegian, ikasturteko edozein titulazio ofizialean (ikasturtean matrikulatuta).
- b) Matrikulatuta dagoen ikastetxe horretako hautaketa prozesuan aukeratua izatea, eta inongo diziplina espedienterik edo antzekorik ez edukitzea.
- c) EMHZri dagozkion modulu guztiak gaindituta izatea.
- d) EBeko kide den edozein herrialde bateko hiritartasuna edukitzea, eta parte hartzen duten herrialde batekoa ez izanda ere, Politeknika Txorierrri Ikastegian matrikulatuta egotea.
- e) Ezin izango da aldi berean beste programa edo beka batean parte hartu.

4. HERRIALDEAK

HETEL-Heziketa Teknikoko Elkartearen proiektuaren sustatzailea izanda, onuradunen mugikortasun herrialdeak ezartzeaz arduratzen da. Herrialden esleipena ikaslearen heziketa-zikloaren, haren profilaren eta enpresen sektoreen arabera egiten da.

5. FINANTZAKETA

Egonaldiaren kostuak 100%ean estaltzen du beka:

- Bidaia eta ostatua: HETEL-Heziketa Teknikoko Elkarteak kudeatuta.
- Sakela dirua bi ordainketetan: hasierkoa eta amaierakoa, adierazitako kontu korrontean. Ordainketak egiteko, onuradunak dagokion dokumentazioa entregatu beharko du, ezarritako ordainketen arabera².

Praktikari justifikatu gabeko arrazoi batengatik uko egiten bazaio edo bertan behera utziz gero, ordura arte jasotako diru kopurua **OSORIK** itzuli beharko da. Gainera, ikasleak **ez du Lantokiko Prestakuntza (FCT) aprobaturik**. Uko egitearen arrazoiak behar bezala justifikatzen bada, egondako denbora errealari dagokion kopurua jasoko da.

² Ordainketa guztiak egiteko, dagokien epeetan behar den dokumentazioa aurkeztea ezinbesteko baldintza da.